

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Garrantzitsua da enpresa baten eta bere bezeroen arteko harremana zehaztea, gure proiektua aurrera atera ahal izateko oinarrizkoak baitira. Guk beraiek nahi duten diseinuari hobeto egokitzen zaiona lortu nahi dugu eta bezero bakoitzaren arabera harreman pertsonala edo automatikoaren artean aukeratu daiteke.

Guk bezeroekin izango dugun harremana bereziki, harreman pertsonala izango da. Izan ere, bezero batzuekin altzariaren diseinua diseinatu behar da, beraz aurrez aurre ikustea ezin besteko dela uste dugu. Bezero kanpotarrak ere izan ditzakegunez, aukera egongo da bideo-dei bidez hitz egitea, webgunean utziko bai dugu informazio guztia. Gainera guztion artean 5 hizkuntza hitz egiten ditugu eta ez dugu uste komunikatzeko arazorik izango ditugunik, baina hoberen menderatzen ditugunak euskara, gaztelania eta ingelesa dira, hala ere, hauetaz gain italiara eta frantsesa ere badakigu.

Diseinu pertsonala nahi duten bezeroez gain, guk sortutako diseinuak nahi badituzte, ez da beharrezkoa parez pare ikustea, baina nahi izanez gero prest egongo gara. Bestela, webgunean gurekin harremanetan jartzeko hainbat modu ezberdin eskainiko ditugu.



Hau guztiaz gain, gure bezeroak eskaintza eta produktu berriei buruz eguneratuak egotea gustatuko litzaziguke gure enpresarekiko interesa mantendu dezaten eta bezeroei eutsi ahal izateko. Hori dela eta, posta elektronikoko bidez aldakuntza, eskaintza eta berritasun guztiei buruz jakiteko aukera izango dute. Gure postak jasotzeko webgunean izena ematearekin edo gurekin kontaktuan jartzearekin nahikoa izango litzateke, eta gainera guztiz dohainik, emango dugun zerbitzu bat izango da.

Negozio partikularren kasuan nahi izanez gero harreman zuzena eduki dezakegu eta beraien bulegoetara joan altzarien diseinuak ondo zehazteko.

Negozio handietan berriz, korreoaren bitartez jarriko gara harremanetan, izan ere, beraiekin biltzea ezinezkoa egiten zaigu.

Ondorioz, esan dezakegu gu prest gaudela harreman zuzena edukitzeko bezeroekin beraiek nahi izanez gero. Hala ez balitz webgunea dugu erosketa automatikoa egiteko erosoago sentitzen badira edota ez baldin badute nahi diseinu pertsonalizaturik.

